



## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

### **EKOIZLE TXIKI ETA HANDIEN ETXEKO HONDAKIN ORGANIKO KONPOSTAGARRIA BILTZEKO HAINBAT EDUKIERATAKO POLTSA KONPOSTAGARRIEN HORNIKUNTZA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ, KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA**

#### **I. KONTRATUAREN EDUKIA**

##### **1. KONTRATUAREN HELBURUA**

Baldintza Agiri honen arabera egiten den kontratuaren xedea poltsa konpostagarrien hornikuntza izango da; hainbat edukieratakoak izango dira eta ekoizle txiki eta handien etxeke hondakin organiko konpostagarriak biltzeko erabiliko dira; hornidura Baldintza Teknikoen Agirian jasotako espezifikazio teknikoen arabera egingo da, eta poltsen kopuru osoa ez da aldez aurretik zehaztuko; eta, beraz, kontratistak Mankomunitateari egingo dizkion entregak, honek kontratuak iraun bitartean eskatzen dizkion kopuruen arabera izango dira.

Esleipenaren ondorioetarako, hornikuntza ondoren adieraziko diren loteetan zatituko da, baina lote bakar bat, gehiago edo guztientzat egin daiteke eskaintza:

- 1. LOTEA: 10 litroko poltsa.
- 2. LOTEA: 20 litroko poltsa.
- 3. LOTEA: 40 litroko poltsa.
- 4. LOTEA: 60 litroko poltsa.
- 5. LOTEA: 120 litroko poltsa.

CPV kodea: 18923100-6

##### **2. EPEA**

Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, izenpetzen den egunaren biharamunetik aurrera, beste urtebetez luzatu ahal izango delarik.

Eskaera bakoitza entregatzeko epea hilabetekoa izango da dagokion jakinarazpena hartu eta hurrengo lanegunetik zenbatuta.

Epe hori igarota, kontratista berandutzan sartuko da, eta ez dio Mankomunitateak aldez aurretik hertsatuki agindu beharrik izango.

Mankomunitateak bere lurralde-eremuan finkatzen duen lekuan edo lekuetan egin beharko da hornigaiaren emate edo entrega.

### **3. LIZITAZIO-PREZIOA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA**

Kontratu honen modalitatearen arabera, ez da ezarriko bere prezio osoa, baizik eta osatzen duten hornikuntza-unitateena; eta horietako bakoitzarena, BEZa sartu gabe, ondoren loteka adierazten dena izango da, eta eskaintzaileek hobetu egin dezakete prezio hori. Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 250.000 €-koa izango da.

Lizitazio prezioa, BEZ gabe, loteetako bakoitzetik hornituko den unitate bakoitzeko, honako hau izango da:

- 1. lotea (10 l.ko poltsa): 0,055 €/poltsa.
- 2. lotea (20 l.ko poltsa): 0,15 €/poltsa.
- 3. lotea (40 l.ko poltsa): 0,20 €/poltsa.
- 4. lotea (60 l.ko poltsa): 0,35 €/poltsa.
- 5. lotea (120 l.ko poltsa): 0,45 €/poltsa.

Unitate-prezioetan gastu guztiak sartuta egongo dira, garraioarenak barne.

Aurkezturiko proposamenetan sartuta egongo dira ez bakarrik hornigaiaren prezioa, baita hortik ondorioztatuko diren era guztietako zergak eta gastuak, emate- eta garraio-gastuak ere.

### **4. FINANTZAKETA**

Kontratu honen prezioa ordaintzeko aurrez ikusita dago finantzaketa aurtengo aurrekontuaren kargura. Etorkizunean ukituko dituen ekitaldietako aurrekontuetan ere kontratu hau finantzatzeko behar diren kredituak gordeko ditu aurrekontu-gaietan eskudun den organoak.

### **5. ORDAINTZEKO ERA**

Eskaera bakoitza entregatu eta onartu ondoren egingo da ordainketa, aurrez dagokion faktura aurkeztuta.

Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginean 216. artikuluan ezarritako epeen barruan ordainduko dira fakturak.

### **6. PREZIOAK BERRIKUSTEA**

Kontratu honi ez zaio inolako prezio-berrikuspenik egingo.

## 7. BERMEAK

Ekonomikoki eskaintzarik onuragarrienak aurkeztu dituzten eskaintzaileak behartuta egongo dira behin betiko bermea jartzera kontratazio-organoaren esku. Horren kopurua lizitaziorako oinarritzko aurrekontu zenbatetsiaren %5ekoa izango da, BEZ kanpo, proportzionalki banatzeko hainbat lote eta esleipendunen artean, hots:

- 1. lotea: 9.465 €
- 2. lotea: 302 €
- 3. lotea: 402 €
- 4. lotea: 907 €
- 5. lotea: 1.422 €

Berme hori aurkezteko epea hamar lanegunekoa izango da, errekerimendua jaso eta biharamunetik aurrera, eta Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginean 96. artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan egin ahal izango da.

Bermea itzultzea Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginean 102. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da, berme-epea bukatu eta esleipendunak bere kontratuzko betebeharrak guztiak bete ondoren.

## 8. KONTRATUA BETETZEA

Ondasunak entregatu beharko dira Baldintza Agiri honetan finkaturiko denboran eta lekuan, preskripzio tekniko eta administrazio-klausulen arabera.

Kontratu hau betetzea kontratistaren arrisku eta benturara egingo da, eta honek ez du kalte-ordaina eskatzeko eskubiderik izango ondasunak Mankomunitateari eman aurretik horiek galdu, matxuratu edo kaltetu egiten badira, salbu Mankomunitatea atzeratu egin bada horiek hartzeko duen epean.

Kontratua gauzatzea Mankomunitatearen zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolpean egingo da, eta ahalmen horiek idatziz nahiz ahoz erabiliko ditu.

Kontratistari edo bere mendeko pertsoneri egozteko moduko egite edo ez-egiteengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen denean, Mankomunitateak beharrezko iruditzen zaizkion neurriak hartu ahal izango ditu martxa ona berreskuratzea lortzeko.

## 9. KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK

Lan arloan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden lege-xedapen guztiak bete behar ditu kontratistak, eta ez baditu betebeharrak horiek betetzen, Mankomunitateak ez du inolako erantzukizunik izango.

## **10. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BETE BITARTEAN HIRUGARRENGOEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK**

Kontratista izango da kontratua betetzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz eragiten diren kalteen erantzule, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginak (SPKLTB) 214. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

## **11. KONTRATUAREN ALDAKETAK**

Mankomunitateak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoagatik SPKLTBek 107. artikuluan ezarritako zirkunstantziaren bat ematen denean, eta betiere horrekin ez badira lizitazio eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen.

Lehen aipaturiko aldaketa posibleak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat.

## **12. HORNIGAIA ONARTZEA ETA BERME-EPEA**

Hornigaia entregatzen denetik gehienez ere hilabeteko epean obrak onartzeko egintza formal eta positiboa egingo da.

Hornigaia ez badago hartzeko moduko egoeran, espresuki jarriko da idatziz eta aginduak emango zaizkio kontratistari akatsak zuzen ditzan edo hornitze berria egin dezan, itundutakoaren arabera. Zuzentze edo ordezkatzeko hori egiten ez bada, Mankomunitateak kontratistaren kontu utziko du, ordaintzeko beharrik gabe edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea lortuz.

Halaber, onartze formala egiten denetik aurrera, urtebeteko epea ezarriko da berme gisa, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginean eta Herri Administrazioen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako ondorioetarako.

Berme-epe horretan Mankomunitateak eskubidea izango du akatsekin saldu dizkioten ondasunak birjartzeko edota, aski baldin bada, konpontzeko.

Berme-epe horretan Mankomunitateak egiaztatzen badu ekarri dizkioten ondasun horiek ez direla gai nahi den helbururako, eta hori kontratistari egotz dakizkiokeen akatsengatik baldin bada, eta pentsatzen badu horiek birjartzea edo akastunak konpontzea ez dela aski izango aipaturiko helburua lortzeko, aukera izango du epe horren barruan atzera bota edo errefusatzeko eta kontratistaren kontura uzteko.

### **13. KONTRATISTARI ZIGORRAK KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK**

#### **A. KONTRATUA BETETZEKO EPEAK EZ BETETZEAGATIK**

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, atzeratu egin bada kontratua betetzeko zuen epea betetzen, bai epe osoari dagokionez eta bai epe partzialei dagokienez, Administrazioak kontratua suntsitzea erabaki dezake, kontratistak bermea galduko duelarik, edota zigorra ezar diezaioke eguneko 0,20 euro kontratu-prezioaren 1.000 euro bakoitzeko.

Berandutzagatiko zigorrak kontratu-prezioaren %5eko multiploa lortzen duten bakoitzean, Kontratazio Organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko, edota zigor berriak ezarriz kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzeko.

#### **B. PRESTAZIOEN EGITE PARTZIALA EZ BETETZEAGATIK**

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan zehazturiko prestazioen egite partziala bete ez badu, Mankomunitateak kontratua suntsitzea erabaki dezake, edota zigorra jar dezake: kontratuaren prezio osoaren %10ekoa

### **14. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO KAUSAK**

Hornidura-kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginak 223. eta 299. artikuluetan ezarritakoak.

### **15. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK**

Administrazioari dagozkio prerrogatiba hauek: kontratuak interpretatzea, hori betetzerakoan sortzen diren zalantzak erabakitzea, interes publikoagatik aldatzea, suntsiaraztea erabaki eta horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginak eta Lege horren Erregelamendu Orokorrak ezartzen dituzten mugen barruan eta betebeharrak eta ondorioen arabera.

## **II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA**

### **16. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK**

Kontratu hau esleitzea prozedura ireki bidez egingo da.

Kontratua esleitzeko oinarritzat hartuko diren eskaintzen balorazio-irizpideak eta horiei egotzitako haztapen edo ponderazioa honako hauek dira:

- Proposamen ekonomikoa: %70.
- Poltsa konpostagarrien ezaugarri tekniko eta funtzionalak: %30

Aipaturiko **irizpide horietatik, balio-judizio baten mendekoak**, eta balioztatze automatikokoak baino lehen balioetsiko direnak, honako hauek dira:

- Poltsa konpostagarrien ezaugarri tekniko eta funtzionalak: 30 puntu. Atal honetan balioetsiko dira:
  - Poltsaren erresistentzia. Soldaduren eraginkortasuna tantaka ez egiteko eta bere sendotasuna betetzen ari garenean edozein tentsiorengatik ireki ez dadin: 8 puntu
  - Poltsak bilkaritik banatzeko erraztasuna, ebakitzerakoan haustura edo urraturik gabe: 8 puntu.
  - Poltsaren benetako neurriak eta edukiontzietara hobeto egokitzeko gaitasuna: 8 puntu
  - Eskaturikoaren gaineko hobekuntzak, poltsa bakoitzaren trazabilitatea bermatuko duen sistema ezartzeko (adib.: poltsa zenbakituak): 6 puntu.

**Balioztatze automatikoko irizpideak.** Proposamen ekonomikoa: 70 puntu. Honako formula hau aplikatuz baloratuko da:

Onarturiko proposamenei dagozkien eskaintza ekonomikoen puntuazioen kalkulua haien arabera egingo da, interpolazio linealaren bidez, bi puntuak mugaturiko zuzenaren arabera: P1 (Gehienezko beherapena, gehienezko puntuazioa) eta P2 (Zero beherapena, gutxieneko puntuazioa), eta aipaturiko zuzen horretan horiek mugatzen duten segmentuaren barruan.

Aipaturiko puntuak honako hauek dira:

P1 – Eskaintzarik merkeena (gehienezko beherapena), horri puntuazio maximoa emango zaiolarik ( $P_{max}$ ).

P2 – Lizitazio-tasari dagokiona, eta horri puntuazio minimoa emango zaio ondorengo formularen arabera dagokiona:

Lizitazio tasari dagokion gutxieneko puntuazioa:

$$P_{min} = P_{max} \times (1 - B_{max} \cdot 3)$$

( $B_{max}$  = Beherapen maximoa)

Beherapena (B): lizitazio-tasaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko aldea zati lizitazio-tasa.

$P_{min}$  en kalkulua negatiboa izango balitz,  $P_{min}=0$  izango litzateke.

Lehen zehazturiko zuzena lortzeko, onarturiko oinarrizko eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Printzipioz, neurrigabeko edo ausarkeriazko beherapen gisa hartuko da aurkezturiko proposamen guztien beherapen-ehunekoen batez besteko aritmetikoa 10 unitatetan gutxienez gainditzen duena; eta hori neurrigabeko edo ausarkeriazko beherapentzat jotzeko Kontratazio Organoaren erabakia behar da, aurrez informazioa eskatuko zaielarik horretan ustez inplikaturiko eskaintzaile guztiei, baita dagokion Zerbitzuaren aholkularitza teknikoa ere.

## 17. KONTRATAZIO-MAHAIA

Hauek izango dira Kontratazio Mahaia osatuko duten kideak:

### Lehendakaria:

- Mankomunitateko lehendakaria

### Mahaikideak:

- Ingurumen Batzordeko lehendakaria
- Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoa
- Ingurumen Zerbitzuko Ustiapen arduraduna
- Mankomunitateko behin-behineko kontu-hartzailea
- Mankomunitateko behin-behineko idazkaria.

### Idazkaria:

- Mankomunitateko behin-behineko idazkaria.

## 18. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio-prozedura honetan pertsona natural edo juridikoek parte har dezakete, jarduteko gaitasun osoa baldin badute, beren ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatzen badituzte, eta Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginak 60. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetan sartuta ez badaude. Kaudimena 20. klausulan e) hizkian ezarritako bitartekoen arabera egiaztatu eta balioztatuko da.

Halaber, beren izenean edo baimendutako beste norbaiten bidez aurkez dezakete, horretarako aski ahalorde emanda. Pertsona juridiko baten ordezkari gisa bere kideren bat agertzen denean, horretarako ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Eta kasu batean nahiz bestean, ordezkariari ere kontratatzeke aipatu ditugun ezintasun-kausak dagozkio.

Halaber, enpresaburuek enpresa- edo lanbide-prestakuntza izan behar dute, hala dagokionean, kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko eska daitekeena.

## **19. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA**

Kontratazio honen espedientea, eta horri atxikitako dokumentazio teknikoa, Debagoieneko Mankomunitatearen Idazkaritzan aztertu ahal izango da, 8:00etatik 14:00etara, lanegun guztietan lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Proposamenak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita aurkeztu behar dira, aipaturiko lekuan eta ordu berean, deialdiaren iragarkian ezarritako epearen barruan.

Enkante-eskaintza edo lizitazio hau Kontratazio Organoaren kontratatzailearen profileen ere iragarriko da, eta bertara honako atari informatiko edo webgune honen bidez sartu ahal izango da: [www.debagoiena.eus](http://www.debagoiena.eus). Gune honetan bertan baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria ikus daitezke.

Baldintza-agiri edo, hala badagokio, enkante-eskaintzaileek eskatzen duten dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria proposamenak jasotzeko finkaturiko azken eguna baino sei egun lehenago emango da, betiere proposamenak jasotzeko aipaturiko epea amaitu baino gutxienez zortzi egun lehenago egin baldin bada eskaera.

Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bategineko (SPKLTB) 158.3 art.an xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria ezin izan bada eman aipaturiko epeetan, edota eskaintzak tokia bera ikusi ondoren bakarrik egin daitezkeenean eta baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa aurrez "in situ" kontsultatu ondoren bakarrik egin daitezkeenean, eskaintzak hartzeko epea komeni den denboran luzatuko da hautagaiek eskaintzak egiteko beharrezko informazio guztia ezagutu ahal izan dezaten.

Hartzeko finkaturiko epea baino geroago aurkezturiko proposamenak ez dira onartuko, nahiz eta agerrarazi epea amaitu baino lehen ipini zirela Postetxean, salbu postaz bidali den egun berean Kontratazio Organoari telex, fax, telegrama edo posta elektronikoz jakinarazi bazaio eskaintza bidalitako dataren justifikazioa. Jakinarazpena posta elektronikoz bidaltzea Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorrean 80.4 artikuluan bere baliotasunaz ezarritakoaren arabera egingo da.

## **20. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA**

Eskaintzaileek hiru gutun-azal (A, B eta C) aurkeztuko dituzte itxita eta horietako bakoitzean hau agertuko da "POLTSA KONPOSTAGARRIZ HORNITZEKO KONTRATAZIOAN, PROZEDURA IREKI BIDEZ, PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA, LOTEAK....."



Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena ere adieraziko da, proposamena izenpetzen duenaren izen-deiturak eta zein izaeraz egiten duen, hiru gutun-azalak ere izenpetuta egon behar dutelarik.

**“A” gutun-azalaren azpititua “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA” izango da** eta honako agiri edo dokumentu hauek izango ditu barruan:

a.- Parte-hartzailearen edo bere ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Beste pertsona edo erakunde baten ordezkari gisa diharduenean, notario-ahalordetzea, gutun-azal honetako dokumentazioa kalifikatzeko prozesuan ahalordea askietsiko duelarik erakunde honek.

b.- Eskaintzailea pertsona juridikoa baldin bada, eraketa-eskritura edo, hala badagokio, aldaketa-eskritura aurkeztu behar du, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, baita zerga-identifikazioko zenbakia ere, izen-ematea eska dakioken betebeharra baldin bada aplikagarri zaion merkataritza-legeriaren arabera. Ezin bazaio eskatu, jarduteko gaitasunaren egiaztatzea eraketa-eskritura edo agiriaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren bidez egingo da, horietan agertzen badira bere jarduera erregulatzen duten arauak, hala balegokio, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatuak.

Enpresaburuak espainiarrak ez direnean baina bai Europako Erkidegoko kide diren estatuetakoa kideak, ezarrita dauden Estatuko legeriaren arabera, dagokien Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu behar dute, edota zinpeko adierazpena edo ziurtagiri bat aurkeztu, Europar Erkidegoan aplikatu beharreko xedapenen arabera.

Gainerako enpresaburu atzerritarrek beren Estatuan dagoen Espainiaren Diplomazia Misio Iraunkorrek edo enpresaren helbideari dagokion lurralde-eremuko Kontsuletzeko Bulegoak egindako txosten bidez egiaztatu beharko dute jarduteko gaitasuna.

c.- Kontratatzeko debekuetan sartuta ez dagoela adierazten duen aitorten arduratsua, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginak 60. artikuluan ezartzen dituelarik debeku horiek; eta aitorten horretan espresuki sartuta indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga eta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituela, salbu azken bi zirkunstantzia hauen ziurtagiriak aurkeztu direnean.

d.- Jarduera Ekonomikoen Zergan (JEZ-IAE) alta emanda dagoelako agiria, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, horretarako alta aurkeztuz, aribideko ekitaldiari badagokio, edo JEZ/IAEren azken ordainagiria, gainerako kasuetan, bi kasuetan adierazpen arduratsua eginez aipaturiko zergaren matrikulan ez duela baja eman frogatzeko.

e.- Eskaintzailearen ekonomia, finantza, teknika eta lanbide arloko kaudimenaren frogagiriak, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginak 75.b) eta 77.a) artikuluetan ezarritako bideak erabiliz.

Aipaturiko bitartekoei dagokienez, kontratu honetarako enpresek bete behar dituzten gutxieneko kaudimen-betekizunak zehazki honako hauek izango dira:

- Lanbide-arriskuengatik kalte-ordainetarako aseguru, 500.000 € edo gehiagokoa.
- Azken hiru urteetan kontratu honen xedearen antzeko hornikuntzak egin izanaren egiaztagiria.

f.- Hainbat enpresaburuk Aldi Bateko Enpresa Elkarte (ABEE-UTE) gisa aurkeztu nahi badute, horietako bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera eta, halaber, esleipendun gertatuz gero, ABEE gisa eratzeko konpromisoa hartuko dute. Halaber, ABEEko kide bakoitzak egingo lukeen zatia adieraziko dute proposamenean, guztien kaudimen-betebeharrak zehaztu eta egiaztatzeko.

g.- Kontratuaren inguruan zuzenean edo zeharka sor litekeen edozein gorabeheratarako, atzerriko enpresek aitorten bat aurkeztu behar dute Espainian edozein mailatako auzitegi eta epaitegien eskumenean jartzen direla adieraziz, hala balegokio, eskaintzaileak atzerrian izan lezakeen foru jurisdikzionalari uko eginez.

h.- Prozedura honen ondoriozko jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa, SPKLTBeko 151.4 art.aren arabera eta bertan ezarritako ondorioetarako.

Aurreko a), b) eta e) hizkietan adierazitako zirkunstantziak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratista eta Enpresa Saillkatuen Erregistro Ofizialaren, Estatuko Lizitatzailen eta Enpresa Saillkatuen Erregistro Ofizialaren ziurtagiri bidez edo Europako Komunitatearen saillkapen-ziurtagiriaren egiaztatu ahal izango dira, SPKLTBeko 84. art.aren ezarritakoaren arabera. Ziurtagiri horrekin batera eskaintzailearen aitorten arduratsua adieraziz ziurtagiri horretan aipatzen diren zirkunstantziak ez dutela aldaketarik izan.

Aurreko atalean aipaturiko ziurtagiria elektronikoki ere egin ahal izango da.

**Agiri hauek guztiak jatorrizkoak izango dira edo behar bezala egiaztaturiko kopiak**

**A GUTUN-AZALEKO dokumentazio honen ordez hasieran eskaintzailearen aitorten arduratsua egin daiteke, II. Eranskineko ereduaren arabera, bertan adieraziz, proposamenak aurkezteko epea bukatzen den egunean, betetzen dituela Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak. Kasu horretan, esleipen-proposamena bereganatzen duen eskaintzaileak, dagokion kontratazio-organoaren aurrean, eta kontratua esleitu aurretik, eskaturiko dokumentuak badituela eta baliozkoak direla egiaztatu beharko ditu.**

**“B” gutun-azalaren azpiztitulua hau izango da: “BALIO-JUDIZIO BATEN MENDEKO BALORAZIO-IRIZPIDEAK” eta gutxienez honako hauek izango ditu barruan:**

- Proposaturiko poltsa konpostagarrien ezaugarri tekniko eta funtzionalen xehetasuna:
  1. Poltsen ezaugarri teknikoen deskribapen zehaztua, hor sartuta neurriak, materialak, akaberak, argazkiak edo beste edozein informazio grafiko, sistemak ikuspegi teknikitik ongien deskribatzen dituenak.
  2. Eskaturiko konpostagarritasun-, iraunkortasun- eta erresistentzia-eskakizunak betetzen dituztela egiaztatuko duten ziurtagiri guztiak.
  3. Hala balegokio, baldintza-agirian eskaturikoari gehitutako hobekuntza teknikoen xehetasuna.

Gainera, proposamenak aurkezterakoan, eskaintzaileak lagin bat aurkeztu behar du (gutxienez 10 poltsa), Mankomunitateko zerbitzu teknikoek aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien proba operazionalak egin ahal izan ditzaten.

**“C” gutun-azalaren azpтитulua hau izango da: “PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA BALORAZIO AUTOMATIKOKO IRIZPIDEAK”** eta agiri hauek izango ditu barruan:

- a) Proposamen ekonomikoa, l. eranskinean ezarritako ereduari egokituia.

## **21. AURKEZTURIKO DOKUMENTAZIOA IREKI ETA TRATATZEA ETA ENPRESAK AUKERATZEA**

Proposamenak aurkezteko epea amaiturik honako jarduketa hauek egingo dira:

### **1. “A” GUTUN-AZALA IREKITZEA ETA DAUKAN DOKUMENTAZIOA TRATATZEA**

Mahaiak “A” gutun-azalean dagoen dokumentazioa kalifikatuko du. Horretarako, eskaintzaileen gaitasun eta kaudimenari buruzko azalpenak edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dira, eta Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorreko 22. artikulua xedatzen duen bezala aurkeztu beharko dira, bost egun naturaleko epean. Azalpen edo argibide osagarrien eskatze hori Mahaiak ahoz adieraziko die interesatuei, eta aldi berean Mankomunitateko iragarki-taulan eta Kontratzailearen Profilean ere iragarriko da. Era berean jakinaraziko du Mahaiak aurkezturiko dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsik baldin badago, kasu honetan hiru lan-eguneko epean, aipaturiko Erregelamenduko 81. artikulua araberak, eskaintzaileek zuzen ditzaten aurkituriko akats horiek.

### **2. ENPRESAK AUKERATZEA**

Kontratazio Mahaiak, aurkezturiko dokumentazioa kalifikatu eta, hala balegokio, aurkituriko akatsak edo omisioak zuzendu ondoren, Baldintza Agiri honetan ezarritako hautespen-irizpideetara egokitzen diren enpresak zehazteari ekingo dio, argi eta garbi erabakiz zein diren enkantean onartuak, zein baztertuak eta baztertze horretarako kausak.

### 3. "B" GUTUN-AZALA JENDAURREAN IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondorengo bosgarren lanegunean —eta egun hori larunbatean suertatzen bada, hurrengo astelehenean, salbu eskaintzailereren batek bere eskaintza postaz bidali duenean, kasu honetan Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorrak 80. artikuluan ezartzen duen epea bukatu ondorengo lehen lanegunean egingo baita— goizeko hamarretan irekiko dira B gutun-azalak.

### 4. "C" GUTUN-AZALA JENDAURREAN IREKITZEA

"B" gutun-azalean dagoen dokumentazioa ireki eta balioetsi ondoren, "C" gutun-azala irekiko da jendaurrean, kontratatzailearen profilean adierazitako egunean eta orduan.

Ekitaldi honetan balio-judizio baten mende dauden irizpideei esleituriko balorazioaren berri emango da.

### 5. ESKAINTZAK SAILKATZEA

Irizpide guztiak baloratu ondoren, aurkezturiko proposamenak, beheranzko ordenan sailkatuko ditu Mahaiak, eta kontratua esleitzeko proposamena helaraziko dio hori egin behar duen kontratazio-organoari.

SPKLTBeko 152. art.an ezarriaren arabera, neurrigabe edo anormaltzat jo daitezkeen proposamen bat edo gehiago identifikatzen direnean, eskaintzen izaera neurrigabe edo anormaltzat jotzeak aurrez aurkeztu dituen eskaintzaileari edo, hala badagokio, eskaintzaileei entzutea eskatuko du, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa.

Kasu honetan, kontratazio-organoak, eskaintzaileak aurkezturiko justifikazioa eta eskaturiko txostenak ikusita, Kontratuaren esleipena ekonomikoki onuragarriena den Administrazioaren gogara bete daitekeela uste den eskaintzari egingo dio.

Aitzitik, kontratazio-organoak uste badu eskaintza ezin dela bete balio anormal edo neurrigabeak sartu izanaren ondorioz, sailkapenetik kanpo utziko du, eta ekonomikoki onuragarriena den proposamenaren alde erabakiko du esleipena, sailkatu diren ordenaren arabera.

Egindako guztia idatziz jasota geratuko da espedientean, nahitaez egin behar diren aktetan.

### 6. HALA BADAGOKIO, LEHEN SAILKATUARI ERREKERIMENDUA

Aurreko jarduketa horiek egin eta gero, hala badagokio, errekerimendua jaso eta biharamunetik aurrera hamar laneguneko epean honako hauek egin ditzan eskatuko zaio lehen sailkatuari:

- a) Zerga- eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dituela egiaztatzeko agiriak aurkeztea, edo kontratazio-organoari baimena ematea zuzenean lor dezan horren egiaztapena. Ez da dokumentu hau aurkeztu beharko, ziurtagiriak proposamenarekin batera aurkeztu baldin badituzte.
- b) Hala badagokio, behin betiko bermea eratu izanaren dokumentazioa aurkeztea
- c) Hala badagokio, laneko arriskuen prebentzioari buruzko dokumentazioa aurkeztea.
- d) Hala badagokio, A gutun-azaleko dokumentazioa aurkeztea.

Errekerimendua ez bada egoki betetzen ezarritako epean, pertsona edo enpresa eskaintzaileak bere eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da, eta kasu horretan dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzen sailkapen-ordenan hurrengo eskaintzaileari.

## **22. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK**

Kontratazio-organoak dokumentazioa hartu ondorengo bost lanegunen barruan esleituko du kontratua; eskaintzaile guztiei emango zaie horren berri eta Erakunde honen kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

Kontratua administrazio-dokumentuan burutu behar da zehatz-mehatz egokituz enkantearen baldintzetara, eta agiri hori aski titulu izango da edozein erregistro publikotara sartzeko. Hala ere, kontratistak eska dezake kontratua eskritura publiko bihurtzea, bere kontura izango direlarik dagozkion gastuak.

SPKLTBeko 40.1 artikulua araberako, kontratazio arloan helegite berezia izan dezakeen kontratua denez, formalizazioa ezingo da egin hamabost lanegun igaro baino lehen esleipenaren jakinarazpena eskaintzaileei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik aurrera, epe horretan jar daitekeelarik aipaturiko helegitea, eta kasu horretan eten egingo da kontratazio-prozeduraren izapidetzea helegitea ebatzi arte, hau SPKLTBeko 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera garatuko delarik.

Inolako helegiterik jarri gabe aipaturiko hamabost egunak igarotzen badira, esleipendunari eskatuko zaio kontratua formaliza dezan bost egun igaro baino lehen errekerimendua jaso duen egunaren biharamunetik zenbatuta.

### **III.- IZAERA, ARAUBIDEA ETA ESKUMENA**

## **23. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDEA**

Kontratu honek administrazio-izaera izango du, eta Baldintza Agiri honen eta ondoan duen gainerako dokumentazio teknikoaren arabera arautuko da. Hor ezarri gabeko guztian, honako

hauek hartuko dira kontuan: 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bategina onartzen duena; 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuena, partzialki garatzen duena; baita Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorra ere, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuz onartua, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuari aurka egiten ez dion neurrian; eta, hala balegokio, Herri Administrazioen kontratazioari aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Administrazio Klausula Berezien Agiri honen eta espedienteari atxikitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesana dagoen kasuan, Baldintza Agiri honetan ezarritakoa nagusituko da.

Kontraesanik balego Administrazio Klausula Partikularren Agiri honen eta espedienteari atxikitako beste dokumentazio teknikoaren artean, Agiri honetan xedatutakoa nagusituko da

## **24. DATU PERTSONALAK BABESTEIA**

Kontratu honek datu pertsonalak ezagutzea ekartzen badu, SPKLTBeko Hogeita Seigarren Xedapen Gehigarriaren ondoriozko betebeharrak bete beharko ditu kontratistak, 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak, Datu Pertsonalak Babestekoak, eta bere garapen-araudiak, ezartzen dutenari dagokionez.

## **25. ESKUMENA**

Kontratu honen ondoriozko gai gatazkatsuak kontratazio-organoak ebatziko ditu, eta honen erabakiek amaiaraziko dute administrazio-bidea; horien aurka zuzenean jo ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, nahiz eta, hala badagokio, helegite berezia jartzeko aukera egon kontratazio arloan SPKLTBeko 40tik 49ra bitarteko artikuluek arautuaren arabera, edo 30/1992 Legean, azaroaren 26koan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan araututako edozein.

## I. ERANSKINA PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Nik, ..... jaunak/andreak,  
helbidea .....,  
P.K. ...., NAN-zka....., telefonoa ..... eta helbide  
elek. .... ditudanak, jarduteko gaitasun juridiko osoaren jabe, neure  
izenean [edo ..... (e)n izenean, eta honen  
helbidea ....., P.K.....,  
telefonoa....., eta NAN edo IFZ-CIF-zka. (pertsone fisikoa edo juridikoa  
izan) ..... dira], poltsa konpostagarrien hornikuntza kontratatze  
Debagoieneko Mankomunitateak deituriko prozedura irekiaren berri izan dudalarik, aitortzen  
dut:

1<sup>a</sup>) Hori gauzatzera konprometitzen naizela ondoren zehaztuko diren unitate-prezioen aplikaziotik aterako den guztizko prezioan eta kontratuan ezarritako iraupen-epetan. Aipaturiko prezioetan gastu guztiak daude sartuta, garraioarenak barne.

- **1. lotea:.....€/poltsa, gehi.....€ (%... BEZ).**
- **2. lotea:.....€/poltsa, gehi.....€ (%... BEZ).**
- **3. lotea:.....€/poltsa, gehi.....€ (%... BEZ).**
- **4. lotea:.....€/poltsa, gehi.....€ (%... BEZ).**
- **5. lotea:.....€/poltsa, gehi.....€ (%... BEZ).**

2<sup>a</sup>) Ezagutzen dudala Administrazio Klausula Berezien Agiria, Baldintza Teknikoen Agiria eta kontratu hau arautuko duen gainerako dokumentazioa, espresuki onartu eta bere osotasunean men egingo diodalarik.

3<sup>a</sup>) Nik ordezkatzeko dudako enpresak indarrean dagoen araudiak bere irekitze, instalazio eta funtzionamendurako eskaturiko baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela

.....(e)n, 201...eko .....aren .....(e)an

Sinadura

## II. ERASKINA

Nik, ..... jaunak/andreak, helbidea ..... eta NAN-zka ..... ditudanak, neure gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna bete-betean izanik, neure izenean (edo ..... ren ordezkari gisa, honen helbidea ..... da, eta IFK-zka .....), POLTSA KONPOSTAGARRIEN HORNIKUNTZA kontratatzeko deituriko prozedura irekiaren berri izan dut, eta

### AITORTZEN DUT

Enpresa lizitatzailerak betetzen dituela legez ezarrita dauden baldintzak Administrazioarekin kontratuak egiteko eta esleipen-proposamena bere aldekoa izango balitz, konpromisoa hartzen duela kontratazio-organoaren aurrean egiaztzeko, kontratua esleitu baino lehen, Baldintza Agiri honen 20. klausulan A gutun-azalean eskaturiko agirien jabetza eta baliotasuna, 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 146.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

.....(e)n, 201.....eko .....aren ...(e)an

Sinadura

**EGINBIDEA.- Baldintza Agiri hau Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zuen 2015eko uztailaren 16an egindako bileran.**

**Arrasaten, 2015eko uztailaren 17an.  
IDAZKARIA**